



UDAZKENA 2018

53. ZENBAKIA

www.elkar.eus



GAZTEEN IRAKURKETETAN IGERIAN

LITERATURA-GEZIAK AIREAN

MAIA ETA BIOK

Miren Agur Meabe

HÁBITOS DE LECTURA Y MÚSICA EN EUSKAL HERRIA

IZEN PROPIOAK:

David Fernández de Arriba · Nagore Irazustabarrena

Alvaro Rabelli · Luis Castellanos · Ene Kantak



8435226172309

LITERATURA-GEZIAK airean

Haurrek eta gazteek irakurtzea nahi dugu, eta horren harira irakurzaletasuna sustatzeaz jarduten gara. Ez dakigu, baina, nola egin. Ez dago formula magikorik, diogu behin eta berriro, eta hamaika kanpaina diseinatzen ditugu funtzionatuko duten esperantzarekin. Irakurtzea ona da, diogu. Ona da? Zertarako da ona? Ona bada, zer irakurtzea da ona? Haurrek eta gazteek irakurtzea ona omen, baina helduok irakurtzen al dugu? Eta hausnarrean ari garela, formula magikorik ez dagoela berriro errepikatuta, zerekin ahaztu, eta literatura berarekin ahazten gara nahiz eta magia inon badago, literaturan bertan dagoen. Horrenbestez, irakurzaletasuna alboratu, eta literatura-zaletasuna hautatuko dugu, aukeran.

Haurrek eta gazteek irakurtzea nahi dugu. Haurrak eta gazteak; hitzok inuitek pertsona txikiak esaten dieten horiek homogeneizatu egiten ditugu guztiak bakar bat balira bezala. **Jorge Larrosa** filosofoak haietaz gauza handirik ez dakigula dio, horregatik haurtzaroaren ezaugarrien inbentarioa egiteko aditu ugari prestatu ditugu, haurtzaroari mugarrak jarri eta zer den azal dezaten. Aitzitik, haur bakoitza mundua berriro asmatzeko eta aldatzeko aukera bat da. Haur bakoitza bakarra da. Haur bakoitza, **Larrosaren** hitzetan, izaki basati bat da.

Izaki basatiok irakurri dezaten nahi dugu eta irakurtzeko ematen diegun horri haur- eta gazte-literatura deitzen diogu. Non jartzen dugu indarra, baina?

Literatura substantiboan ala haur eta gazte adjektiboetan. Litekeena da zabalduagoa egotea bigarren aukera. Alegia, ezagutzen ez ditugun eta homogeneizatzen ditugun izaki basati horientzat propio literatura-aleak sortzearen aukera. Ale horiek, gainera, seriean sortzeko joera dago. Serieak eta sagak, pentsatuz, halaber, izaki ezezagun horiek haietatik irakaspen bat atera beharko luketela; dela jakintza kantitatea handitu, dela balio zehatz batzuk irentsi, dela munduaren bertsio azukretu bat jaso. Saga horiek badute beste ezaugarri bat, sarri neskentzat eta mutikoentzat sortutakoak dira. Horrez gain, ekonomiaren pisua dago. Haurrek irakurtzea ustez ona denez, gaur-gaurkoz, haur-literatura literatura-merkaturik oparoena da. Hori guztia esanda, baliteke merezi izatea indarra literatura substantiboan jartzea.

*“Literatura-zaletasuna
gezi batean doan pozo
moduko bat da,
behin dastatuta betiko
geratzen da modu
batera edo bestera”*

Literatura, beste arte-adierazpenak bezala, nork bere barrutik paseo bat egiteko aukera bat dela dio **Bernardo Atxaga** idazleak. Irakurritako horrek oihartzun bat izango du barruan, hala oroitzapen bat

nola lotura bat, hala ezaguna den emozio baten erreplika nola ezezaguna zaigun emozio batekiko jakin-mina. Adjektiboak adjektibo, literatura hori dena da, eta gehiago.

Haurrek eta gazteek irakur dezaten nahi dugu. Zer irakurri esaten diegu, adin bakoitzean zer eta adinen muga hori gainditzea zaila egiten zaigu literaturak adinik ez daukan arren. Zer ulertu behar duten esaten diegu, eta, bide batez, guztia ez ulertzeko aukera ukatzen diegu, nahiz eta literaturaren ezaugarrietako bat galderak sortzen dituela den, galderak eta galderak jakin-mina suspertzeko. Argietan dauden ilunak ez kututzen dizkiegu haien xalotasunaren izenean. Haur- eta gazte-literaturaren barruan sartzen dugun hori denentzako berdin-berdin balio duela esaten diegu. Bidean, haatik, soilenarekin ahazten gara. Ahazten dugu, beharbada, literaturak ez duela ezertarako balio. Izan ere, baieztapen gogorra da den-denak zer-baitetarako balio behar duen gizarte batean. Izatekotan, literatura-zaletasuna gezi batean doan pozo moduko bat da, behin dastatuta betiko geratzen da modu batera edo bestera. Hala gerta dadin geziak airean ibili behar dira etengabe.

Literaturaz batzuetan bakarrik gozatzen duen haurraren istorioa



Joni ipuin bat gauero irakurtzen zion bere amak ume-umetan. Egunekeo zarata guztiak gelatik kanpo geratzen ziren eta loaren atariraino joaten ziren biak halako liturgia batean. Amak besoa altxatu eta haren gerizpean sartzen zen Jon. Arteen ez zekien bere kasa irakurtzen eta amak narratzailearena egiten zuen.

Egun batean, ama eskolara bere bila joan eta, kaletik zihoazenean, esan ezina den izen alemana duen dendaren izena irakurri zuen Jonek ahots goran. Oi, irakurtzen zekien jada. Liburutxo bat eskuetan jarri zion amak eta, egitekoa bat edo beste zela, Jon bakarrik uzten hasi

zen gauetan. Ez daki ongi liburu deitzen dugun tramankulu horri nola egin zion aurre. Amak, tarteka, irakurtzen zion, baina gauero-gaueroko ohitura hura bertan behera geratu zen.

Jon, bere belaunaldiarekin bat etorritz, gero eta pantaila zaleago egin zen, gutxiago telebista pantailarena eta gehiago bestelako pantailena; tableta lehenengo, telefonoa geroago. Bien bitartean, liburuak irakurtzen jarraitzen zuen, gehienetan, ordea, etxeko-lan itxura ematen zioten Jonek eta bere amak ere bai. Luzaroan hartu ditu amak pantailak etsai gisa, azkenaldian horri

bueltaka dabil, ezin pantailak ezeren erantzule egin. Orain, Jon haurtzaroaren eta nerabezaroaren artean dagoen zubia igarotzen hasia da, eta kontuak antzera jarraitzen du salbuespenak-salbuespen. Eskerrak batzuetan, dio amak bere baitarako, salbuespenetan dena kabitzen dela.

Salbuespenak bi eratakoak dira. Batzuk, amak, lantzean, ahots goran irakurtzen dionean gertatzen dira. Joni, oraindik ere, asko gustatzen zaio. Gerta daiteke Jonek berak ama irakurtzen ari den liburuaren zati bat irakurtzeko eskatzea. Odiseoren abenturekin gehiago nahi zuen



SOLO DICKER PODÍA SUPERARSE A SÍ MISMO

SI TE GUSTÓ

La verdad sobre el caso Harry Quebert
ESTE NUEVO LIBRO TE DESLUMBRARÁ



Disponible en ebook

Disponible en audiolibro

#AdictosaDicker

ALFAGUARA

Penguin Random House Grupo Editorial

Síguenos en:
www.megustaleer.com
www.adictosadicker.com

eta *Spoon River*reko poemekin gehiago eta gehiago. Sakiren ipuinak irakurri berri dizkio eta, irakurketari adi-adi jarraitzen diola ikusita, hurrengo liburua aukeratzen ari da ama aspaldiko ohitura berreskuratzeke. Gerrak interesatzen zaizkio Joni, hurrengo *Stendhalen Parmako Kartusia* izan liteke, zergatik ez? Hori ez bada beste bat izango da.

Beste salbuespenak Joni barruan oihartzuna egiten dioten liburuekin gertatzen dira. Liburuon zerrenda berea bakarrik da. Adibide batzuk. Amak ilusio handiz eraman zion *Julio Vernerren Bost aste globoan*, eta Jonek kasik ehun orrialde irakurri zituen esateko: "ama, ezin dut, oraindik ez dira globoan abiatu..." Orduan, liburua itxi eta utzi. Beste batzuekin, ordea, hala zioen: "Ekarri errusiar horren


ipuin gehiago, mesedez". Errusiar hori *Leon Tolstoi* da. Azkenaldian nobela grafikoeak harrapatu dute gehien, ustez helduentzat direnak. Harrapatzen duten liburuekin honela esaten du: "Ez dut liburu hau amaitzerik nahi". Barruan kukurik sortzen ez dioten liburuak itxi eta utzi ditzake Jonek. Oihartzuna sortzen denean, aldiz, literatura-gezien pozoia dastatzen ari da.

MIRIAM LUKI ALBISUA
Kazetaria

JONEN ZERREDA



■ ALTZOR UHARTEA
R.L. Stevenson
TTARTALO



■ AFRIKA ETA KOLOREAK
Anna Obiols
TTARTALO



■ ZEIN POLITA DEN PANAMA!
Janosch
PAMELA-KALANDRAKA



■ ABEREEN ETXALDEA
George Orwell
ELKAR



■ LAS TRES PREGUNTAS
Leon Tolstoi
GADIR



■ LOS SURCOS DEL AZAR
Paco Roca
ASTIBERRI



■ MIREN NUNCA MAIS!
Pako Aristi
ELKAR



HABA®

Inventa juguetes
para mentes curiosas

LUIS CASTELLANOS EDUCAR EN LENGUAJE POSITIVO



En el libro *Educar en lenguaje positivo* Luis Castellanos describe la experiencia de llevar a la práctica en un instituto madrileño las ideas que ya avanzó en *La ciencia del lenguaje positivo*. Un proyecto de mejorar las vidas de alumnos, profesorado, padres y madres a través de la toma de conciencia del lenguaje que empleamos.

¿A qué llama usted lenguaje positivo?

A la "vida" de las palabras, latido a latido, que guían nuestros comportamientos, a los gestos que diseñan nuestras relaciones y crean una buena historia de vida con un protagonista digno. Nos esculpimos día a día, las palabras crean la forma en que vemos el mundo. Y, lo que es más importante, nuestro habla interior crea nuestras posibilidades, la persona que queremos ser en ese futuro. Este es el poder del lenguaje positivo: ver el lado favorable de la vida con valentía para actuar.

Usted afirma en el libro que hay palabras que tienen demasiado poder sobre nuestra vida...

La vida tiene un componente vital, esencial, para estar más o menos felices y es cómo nos contamos la historia de nuestra vida y, sobre todo, cuán felices nos damos cuenta que hemos sido y somos al contarla. Relatarnos y relatar la vida nos es trascendental, tomar conciencia de las palabras y gestos que utilizamos es una herramienta maravillosa para decidir modificar ciertos rasgos de personalidad que nos pueden ayudar a ser más felices y, por lo tanto, a hacer más felices a los otros.

Luego no es solo que somos lo que hablamos, sino que según cómo hablemos, viviremos mejor o peor...

Respeto es una palabra fabulosa porque tiene una gran repercusión en nuestra forma de comprender la vida. ¿Respetan mis palabras la vida, la felicidad mía y de los demás? El desprecio es un sentimiento que nos impide crecer, aprender, transformarnos. Dos palabras, desprecio o respeto, pueden cambiar la vida en minutos y, a veces, en segundos.

El primer paso es tomar conciencia del lenguaje que empleamos. ¿Y después? ¿Cómo se educa en lenguaje positivo?

El camino es diario, momento a momento. A qué das valor, así será tu confianza. Conectar con la gente, con sus historias, con sus futuros, con las promesas que habitan de sí mismos, nos hará seres de valía, seres de confianza, seres de palabra. Nuestras palabras nos confrontan con nosotros mismos, con nuestra verdad, con nuestra autenticidad. La pregunta es: ¿qué vida y qué palabras habitan en tu corazón?



EDUCAR EN LENGUAJE POSITIVO

Luis Castellanos
PAIDOS Educación

Han llevado a la práctica estas ideas en el instituto Profesor Julio Pérez. ¿Cómo ha sido la experiencia?

Ha sido una experiencia fascinante. Hemos trabajado con las familias, con los estudiantes y con el profesorado con 3 objetivos principales: tomar conciencia de nuestro lenguaje, aprender a regularlo y tener autonomía con él para construir una buena historia de vida. Hemos creado listas de comprobación del lenguaje para transformar nuestras palabras y nuestra vida. En el libro que he publicado con toda esta experiencia, *Educar en lenguaje positivo*, se recogen todas las actividades que hemos realizado en un año escolar. En él encontramos todas las herramientas que hemos diseñado y que son muy útiles y precisas para mejorar nuestro lenguaje y, con ello, la vida día a día. Una experiencia fabulosa que puede cambiar la educación.

TOMAS ZABALLA
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/educar_lenguaje_positivo



LLEGA LA NUEVA NOVELA DE MIKEL SANTIAGO



Disponible
en ebook

B Penguin
Random House
Grupo Editorial

www.megustaleer.com



GAZTEEN IRAKURKETETAN

igerian

Haur eta gazte literaturaren eremuan, topikoak dira nagusi: *haur eta gazteek ez dute irakurtzen, edozer argitaratzen da eurentzat, eskolak ez ditu irakurleak prestatzen, teknologia berriekin liburuak galduko dira...* Eta topikoak, errepikatzearen poderioz, egiaztat hartzen dira. Eta esaten eta entzuten dien horiek gezur osoa ere ez dira, egiaatik zerbait badaukate.

Nire ustez, haur eta gazteek irakurri irakurtzen dute, inoiz ez dute hainbeste irakurri: egungo populazioa eskolatuta dago; udal liburutegiek, aurrekontu oraindik baxuak izan arren, funtzionatzen dute; argitaletxe berri eta ausartak sortzen dira, eta egile eta kolektibo

ugarik beldurrik gabe jorratzen dute autoekoizpenaren bidea.

Irakurketa ohiturei erreparatuta, irakurle gaztea oinarrian ez da gaurko irakurle heldu gehienek jotzeko

eratik asko aldentzen, biak entretenimenduari eta gai "atseginen" bila dabiltza, gordintasunari muzin egiten diote, estiloan deskripzio gutxi eta elkarriketa ugariko irakurketak nahi izaten dituzte, norabide zuzena dutenak, ezustekorik gabe eta ariketa estilistikorik gabe. Gaurko irakurleek erritmo azkarra eskatzen dute, amaierara iristeko gogo bizia dute eta ezer ez da amestutako irakurketa erlaxagarritik aldendu behar. Oro har, irakurle gazteak zer gertatu behar den jakin

nahi izaten du hasieratik, ez du tranparik edo gezurrik nahi, are gutxiago obra kanonikorik.

Horiek horrela, gazteentzako literatura baino "paraliteratura" da: pertsonaia eskematiko eta estereotipatuak, hizkuntza estandarizatua, sinplea eta errepikakorra. Kontakizunak "jarraitzeko" pentsatzen eta bideratzen dira, arrakastatsuak izateko, telesailak izango balira bezala. Idazlea "marka" bihurtzen da, zein da Geronimo Stilton?, zein da Bat Pat? Izan ere, gazteak merkatuaren erabiltzaile eta kontsumitzaile sutsuak dira: musika, jantziak, zinea... Identifikazioa da amua, eta batzuetan are gehiago, imitazioa. Idazleak gazteekin "mimetizatza" jotzen du, beraiek hitz egiten duten bezala hitz egiten du, ikuspuntu berdina dute. Gogoeta saihestuz irakurlea harrapatzea da helburua, kontakizunari lotzea.

Liburua produktu bihurtu da. Helburua "best-seller" bat aurkitzea da, medioen arreta eskuratzeko, irakurle galduak bilatzea, eta, zentzu horretan, lantzen dituzte argitaletxe garrantzitsuenek irakurle gehiago eskuratzeko estrategiak.

Honaino, nire ikuspuntutik haur eta gazteen egungo tendentzien zenbait argi-ilun; proposamen batzuei heltzeko tenorea iritsi zait, eta ea gai honen inguruan lanean gabiltzanoin gogoeta egin edota martxan jartzeko balio digun.

Sortzaileen kopuru handiagoa behar dugu, egungoa ez baita nahikoa merkatuak bere buruari ezarri dion erritmoari aurre egiteko.

Liburu produkzioari begira, premia komertzialei baino premia kulturaleri erantzun beharko litzaieke: liburu eta genero aukera zabala eskaini; erritmo azkarreko eleberriak ez ezik, geldoagoak ere bai, eta irakurteraza izatea ez dadila izan liburu baten bertute edo kalitatearen ezaugarri.

Euskarazko liburuaren eskaintzari dagokionez, komikiak nahi ditugu. Gauza jakina da genero mota hau arrakastatsua dela gazteen artean, eta azken urteotan gorakada bat izan bada ere, oraindik 10-13 urte bitar-

teko haurrentzat ezer gutxi dago, eta adin horretan hasten da komiki irakurlearen zaletasuna garatzen.

Klasikoak ugari, izan egokitzapenak edo jatorrizko edizioak, baina ilustratuak eta testu zaindua izango dutenak. Oraindik ere badugu zer itzuli munduko gazte literaturaren panoramatik.

*“Euskarazko liburuak
dagokionez, komikiak
nahi ditugu, klasikoak
ugari eta ezagutza
liburuak.”*

Ezagutza liburuak ere behar ditugu, irakurle guztiek ez baitituzte aisialdirako eleberriak irakurri nahi, informazio liburuak irudimena garatzeko espazioa eskaintzen dute, mundua erakutsi egiten dute, dena ez baita fikzioa.

Irakurketaren bitartekariari begiratuta, berriz, koordinazio eta konplizitate aktiboa sustatu beharrean gaudela, liburu denda, irakasle, guraso, bibliotekari eta beste erakunde batzuen arteko indarrak batuta.

Nahitaez aipatu behar ditugu irakurle komunitateak. Potentzial handia daukate, aisialdian irakurtzea atsegin duen gazteari tresnak ematen baitizkiote, euren adinekoei "arrarotzat" ez hartzeko. Hor daukagu, adibidez, booktuberren fenomenoak. Bestalde, telebistan irakurketari eskainitako programak izango bagenitu, edo interneteko foro gehiago non espazio komunean irakurzaletasuna partekatzeak aukera egongo litzaitekeen, "desberdina" sentitzen den irakurlea indartu egingo litzateke, "ahaldundu" alegia.

Benetan esanguratsua da familiaren funtzioa ezein jardueratan aritzeko, etxean jasotzen dira maiz gogoak eta kuriositateak. Gazte sasoiari irakurtzeko ohitura moteltzen bada ere, gurasoei ondoan jarraitu beharko luketela uste dut, haur garaian egon diren

moduan, inplikazioa adieraziz, interesa agertuz eta haurtzaroan piztu zuten grina mantenduz, eta baita eskolako irakurketak ezagutuz. Horrela, bada, seme-alaben gustu eta disgustuak zeintzuk diren gertutik jakingo lituzkete.

Amaitzeko, nik uste dut irakurri nahia (ala beharra?) pizten dela irakurketa bizipen bihurtzen denean. Eta horretarako jarduerak librea izatea komeni da, irakurri irakurtzeko, eta ez, ordea, ostenen irakurketa justifikatuko duen irakurketaren bat egiteko.

Hasierako izenburuari helduta, irakurketan murgiltzeko itsaso zabala amesten dut. Liburua gazte edo helduarentzat ote den irizpide estutik at, ez daude espresuki haurrentzat diren liburuak edo helduentzakoak. Liburu onak eta ez hain onak daude, eta ona bada, edozeinentzat da. Adinaren arabera sailkatzea itsasoari mugak jartzea litzaiteke.

ASUN AGIRIANO
Haur-gazte bibliotekaria

Informazio gehiago:
http://bit.ly/gazteen_irakurketa



Descubre los secretos de los villanos más famosos de los cuentos.
¡Ogros, lobos y brujas!
Consíguelo en euskera o en castellano

MAEVA  young
www.maeveyoung.es



JOLASTEN NAIZ, beraz, BANAIZ

Eraikuntzako materialekin dorre bat egin nahian dabil 3 urteko haurra, pieza txikiak ditu oinarrian, eta ohartu da dorreari eusteko pieza handiagoak jarri behar dituela behean. Buruari eragiten dion bitartean kide batek bota egin dio lau mailako eraikina; lehena haserretu da eta beste dorre bat egiten ahalegindu da. Ostera, lorpena suntsitu dio kideak. Eraikuntzako pieza erdiak hari utzi dizkio haurrak, “zuk egin, zuk bota”, esanaz; onartu du.

Ahalik eta dorre garaiena egiteko bere buruari jarritako erronka buruhauste txikia ez, eta 3 urteko haurrak lagunak eragin dion hasarrea kudeatzeaz gain biak jolas daitezen soluzio bat bilatu du. Sormena, emozioak, harremana, psikomotrizitatea, adimena... esparru asko kudeatu behar dituzte haurrek jolasean ari direnean. Eta plazeraz egiten dute. Erronkak gainditzearen gozamina ematen baitie jolasak haurrei.

*Horra jolasaren miraria
esplikatzeko duen hitza: PLAZERA.*

Hain da garrantzitsua jolasa, Maite Garaigordobil jolasean aditu eta psikologian doktorearen arabera, “haurraren garapen integralerako giltza” dela jolasa. Gozamina da motore. Plazerak eramaten du haurra jolasaren bidez ikastera, ezagutzera, deskubritzera: nor bilakatzen. Lehenik eta behin bere burua (gorputza), bere emozioak eta irrikak ezagutzera, eta ondoren inguratzen duena deskubritzera darama jolasak haurra, ingurune fisikoa (espazioak, mundua bera) eta soziala (kideak, kultura, arauak...).

SAKRATUA behar luke izan jolasak.

Hilabete gutxirekin hasten da haurra olgetan: pilota harrapatu nahiak lau hankan hastera bultzatuko du, adibidez, eta psikomotrizitate aldetik bere burua ezagutzen lagunduko dio haur txikiari mugimendu autonomoak. Lehen etapa honetan helduleku aproposko materialak eta garapen sentzorialari laguntzeko eskutan hartu, zanpatu, ahoratu edo bota ditzaketan testura, usain, kolore, tamaina eta soinu anitzetako materialen saski bat eskaintzea aproposa litzateke.

2-3 urterekin olgetak forma agerikoagoa hartzen du haurra jolas sinbolikoan murgiltzen denean. Banintz, bazina, bagina bezala ibiltzen hasten da haurra. Medikutan, dendaritan, gurasotan... bizi duten mundua berrinterpretatzen hasten dira. Hala, pediatriari zion beldurra gainditu zuen 3 urteko haurrak Olentzerok ekarri zion mediku-maletatxoarekin orduak jolasean eman ostean; 4 urteko umeak, berriaz, neba jaioberriaren etorrera zein gaizki zeraman



adierazi zuen gurasotan haur txikia baztertzen zuela azaltzean... Panpinen, disfrazen, takoiien, sukaldeen, denden, autoen... garaia da. Aurreko etapan bere burua ezagutu duen haurra orain ingurunea ezagutzen eta barneratzen ari da.

Halaber, etapa hau mugimendu garai betea ere bada; buru-belarri jolas sinbolikoan murgildurik egon ostean, mugimendua behar du haurrak: erorikoetatik altxatzen ikasteko garaia da. Eta baita hizkuntzaren aro betea ere: ipuinek, kantuek, esku-jolasek, aho-korapiloek... haurraren mintzamina inoiz ez bezala elikatuko dute etapa honetan.

Adinarekin, bada, jolasak aldatzen doaz. 6 urtetik aurrera jolasari leku egingo dio jokoak, arauak sartzen baitira. Euren artean, jolas librean asmatzen dituzten arauak daude batetik, taldean negoziatzera behartuko dituztenak, eta baita joko egituratuak behartzen dituzten arauak ere, mahai-jokoetan esate baterako. 2-3 urterten bueltan ere oinarritzko arauak (txandak, irabazi/ galdu...) ulertzeko joko

ederrak badira gaur egun, fruta-arbolen talde-jolasa, adin txikietara egokituriko karta-jokoak, azkartasun-jolaseko fitxak... Geografiaren, logikaren, matematikaren, hizkuntzen edota geologiaren esparruetara gerturatzeko diren mahai-joko aukera zabala dago eta haurrei, joko ugaritan ibiltzeak, esparru bakoitzera modu dibertigarrian gerturatzeko aukera ematen die. Betiko partxisa, antzararen jokoa, xakeaz gain, galdu/irabazi dinamikatik atera eta jolas kooperatiboak ere oso interesgarriak dira haurrak taldean harremanetan jartzen laguntzeko. "Talde guztia helburu bera lortzera bultzatzen duen jola-

Eta heldua? Zein da helduaren egitekoa haurraren jolasaren aurrean? Batetik, material edo jostailu aproposak eskaintzea, zenbat eta naturalagoak eta egituratu gabeak izan, orduan eta aukera zabalagoak eskainiko dizkio, (jostailuak zenbat eta gutxiago egin, haurrak orduan eta aukera gehiago izango ditu; kontrara, botoi bati eman eta 4 argi eta 8 soinu egiten dituen plastikozko gailuak aukera bakarra eskaintzen dio haurrari).

Etapia bakoitzean proposa den jostailu edo materiala eskura (berak ailegatzeko apaletan) jartzea da beste gako bat, arau konplexuak dituen mahai jokorik ez eskaini 4 urteko haurrari; ezta 6koari 24 piezako puzzlerik ere. Jostailuak txandatzea ere gomendagarria da, material bakoitzak eskaintzen dituen aukera guztiak ustiatu aurretik aspertu ez dadin haurra. Eta segurtasuna ematea dagokio helduari, ingurune aproposa, minik emateko eta hartzeko arrisku

gabea, eta helduaren kontentzioa izango duena.

Ahal dela naturan edo kalean jolasteko aukera eman. Eskulanak, mahai-jokoak, puzzleak, liburuak, musika instrumentuak... atera kanpora. **Garaigordobilen** arabera, "kaleak indar sozializatzailea dauka, eta naturak esperientzia estetiko eta emozional positiboak bultzatzen ditu". Eta denbora. Utzi haurrari jolasten. Ezer gutxi egingo dio jolasteak adina on.

sak taldea (lagunak, familia) kohesionatzera darama", **Garaigordobilen** arabera. Harremanen etapa da.

Baina oraindik ere gure kulturaren jolastea denbora gal-tze gisa ulertzen da. Eta eguneko orduak betetzen zaizkie, motxila nola, haur gero eta txikiagoei. Haa-tik, jolasten den haurra da haur sano.

*Jolasak egiten du
HAURRA HAUR.*

AINARA GOROSTITZU
Kazetaria

**Gure liburu-dendetan
behar duzun erreminta bakarra**

elkar
TXARTELA



ikaselkar

irakaslearen bidelagun



XXI. mendeko irakasleen eta ikasleen beharrei erantzuteko, Ikaselkar argitaletxeak eskaintzen dituen zerbitzuak moldatu egin dira. Ikas-materiala sortzeaz gain, abiadura azkarrean eta etengabe aldatzen ari den errealitateari erantzun ahal izateko tresnak eskaini nahi ditu Ikaselkarrek.

Egunerokoan izaten dituzten zailtasunei aurre egiteko, irakaskuntzako profesionalen bidelagun izan nahi du Ikaselkar argitaletxeak. Orain arteko ibilbidea ikas-materiala sortzeari lotua egon da. Hemendik aurrera, baina, bestelako bideak ere jorratuko ditu.

Horretarako, besteak beste, ikasturtearen hasieran ikastetxeetara iristen diren irakasle berrientzat harrera prozesua eskainiko du irailetik aurrera. Horrela, irakasle horrek lehen eskutik ezagutuko

du ikasturtean erabiliko duen material pedagogikoa. Gainera, gaikako on-line eta aurrez aurreko prestakuntza eskaintza ere izango da, hezkuntzako profesionalak metodologiaren erabileran sakondu ahal izateko. Bestalde, on line bidezko IKT mintegiak ere izango dira sareko baliabideen inguruan gehiago jakin nahi dutenentzat.

Halaber, ikasturtean zehar, ikastetxeek Ikaselkarreko profesional bana izango dute bidelagun, behar duten aldiro laguntza emateko prest. Haien beharretara egokitutako prestakuntza saioak ere eskainiko dira, urte guztian.

Sarean euskarri pedagogikoa eskura jartzeko plataforma prestatzen ere ari da Ikaselkar. Bertan, besteak beste, zentro bakoitzaren beharrei erantzun

ahal izateko dokumentuak, euskarriak eta materialen gidak egongo dira.

Lehen Hezkuntzarako eskaintza berria

Ikasturte berriarekin, Lehen Hezkuntzako 6. mailarako EKI metodora egokitutako materialarekin lanean hasiko dira hainbat ikastetxetan. Metodologia hori lehen hezkuntza osora zabaltzeko lanean jarraitzen du Ikaselkarrek. 5. mailako materiala, esaterako, esperimentazio fasean dago, une honetan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osorako eskaintza, berriz, eskuragarri dago aurreko ikasturtetik. EKIk integrazioaren pedagogia du ardatz. Era horretan, irakasleak era errazagoan irakatsi

dezake, ikasleak modu eraginkorragoan ikasi eta gurasoek prozesuan esku hartu ahal izateko. Egoera desberdinen aurrean, irtenbideak aurkitzen lagunduko dio irakasleak ikasleari. Bizitzako edozein egoerari aurre egiten lagunduko dioten konpetentziak garatzen, alegia: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, gainontzekoekin harremanetan bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten..

Pedagogiaren osagai abangoardistekin batera, ikaskuntza digitalean ere jauzi kualitatiboak eman ditu argitaletxeak. EKlren kasuan, eskaintza bikoitza egiten da, paperean eta digitalean. Kasu batzuetan biak konbinatuz eta, beste batzuetan, berriz, bide digitala egin nahi dutenentzat bidea erraztuz.

Metodo berriek hezkuntza komunitateari egiten dioten ekarpena garrantzitsua da, ezbairik gabe. Halere, Txanela metodoak ere ikastetxeetan jarraituko du. Gaur egungo irakasle eta ikasleen beharretara egokitu da garapenen gaitasunean oinarritzen den metodologia da Txanela, hain justu ere. Ikaslego aktiboaren bila dabilen ikaskuntza modua eskaintzen du metodologia horrek.

INAXI UNSAIN
Kazetaria



Etorkizunari begira

Derrigorrezko hezkuntza prozesuari begira eskaintza integrala mahai gainean jartzeko lanean jarraitzen du Ikasleak argitaletxeak, Euskal Curriculum eta konpetentzietan oinarritutako eredu pedagogikoa aintzat hartuta. Arestian esan bezala, EKI metodoaren DBHrako aplikazio osoarekin lanean ari dira, gaur egun, ikastetxeak. Egingakoaren etengabeko egokitzapenak eta hobekuntza prozesua albo batera utzi gabe, Haur Hezkuntzako HH eta LHrako eskaintza osatzeko bidean jarraitzen du.

Bide horretan, lan taldeak osatuta daude eta, datozen urteetan, emailtzak jasotzen jarraituko du hezkuntza munduak. Hezkuntza euskalduna eta kultura transmisioa ditu ardatz Ikasleakrek, eta helburu horiei begira jarraituko du lanean.



BLUME
www.blume.net



16 páginas
24 x 28 cm
Cartoné
PVP 14,90 €



18 páginas
27 x 18,5 cm
Cartoné
PVP 19,90 €



54 páginas
22 x 31 cm
Caja
22,90 €

64 páginas
18,5 x 25,5 cm
Cartoné
PVP 16,90 €



Pequeños relatos de grandes historias



64 páginas
15 x 19 cm
Cartoné
PVP 9,90 €




EGIN HARPIDETZA!

**ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOIA!**

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxean!!

URTEAN
49€



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:






Telefonoz: 902 820 806 zenbakira deituz

E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz.

www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n izena emanaz.

EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEN IRAKURKETA ETA MUSIKA OHITURAK

Euskal herritarrek liburuak eta musika kontsumitzeko dituzten ohiturei buruzko azterlan bat egin du elkar Fundazioak, Siadeco Ikerketa Elkartearen eskutik. Euskal Herri osoan egin da ikerketa, 2.500 inkestaren bidez. Azterketaren emaitza nagusiak jaso dira hemen.



Iturria: Siadeco, 2017

2.500 inkesta egin dira Euskal Herri osoan; 16 urtetik gorako euskal herritarrek hartu dira aztergai. 2,6 milioi biztanleko unibertsoa aztertu da, hortaz: Bizkaian, 996.000 (%37,7); Gipuzkoan, 598.000 (%22,6); Nafarroan, 536.000 (%20,3); Araban, 274.000 (%10,4); eta Iparraldean, 238.000 (%9).

Aztertutako laginari dagokionez, euskaldunak dira %26,6, eta erdaldun elebakarrak %73,4. Etxeko harreman hizkuntza euskara dute %10,3k, eta %76,6k, euskara eta erdara. Gazte-

lanian dute etxeko hizkuntza %74,1ek, eta frantsesa %6,6k.

Hedabideen kontsumoari dagokionez, euskal herritarren %5,8k dituzte euskarazko egunkariak gehien irakurritako bien artean. Herritar euskaldunak soilik hartuta, hau da joera: %20,6k euskarazko prentsa irakurtzen dute. %19,3k adierazi dute ez dutela prentsarik batere kontsumitzen.

Telebistari dagokionez, hamar herritarretik batetik aipatu du euskarazko telebista kateren bat

gehienez ikusten dituen bien artean. Herritar euskaldunak hartuta, hara: euskarazko telebistaren bat %42k ikusten dute; %48k ez dute euskarazkorik batere ikusten.

Sare sozialen erabilera asko aldatzen da adinaren arabera. Datuak esanguratsuak dira: 45etik gorakoetan, oraindik, gehiago dira sare sozialak erabiltzeko ohiturarik ez dutenak; 16tik 25era artekoetan berriz, sare sozialen erabilera orokortua dago, 10 gaztetatik 9k erabiltzen baitituzte.

IRAKURTZEKO OHITURA

Euskarazko eta erdarazko liburuak

Liburu irakurleak dira hamar euskal herritarretik zazpi: %58 ohiko irakurleak dira —libururen bat irakurri dute azken hilabetea—, eta %12, noizbehinkakoak —azken liburua duela sei hilabete baino gutxiago irakurri dute—.

Euskal herritarren %11k irakurtzen dituzte euskarazko liburuak: %6k, ohikotasunez; %5ek, noizbehinka. Kontuan izatekoa da lau euskal herritarretik bakarra dela euskalduna. Nolanahi ere, herritar elebidunak hartuta ere, haien artean ere gutxiengoa dira euskarazko liburuen irakurleak: %42 —%22,9 ohiko irakurleak dira, eta %19,4, noizbehinkakoak—.

Euskarazko eta erdarazko liburuen irakurleak

	Irakurleak		Euskarazko liburuen irakurleak				Erdarazko liburuen irakurleak		Euskaldunek aisialdian liburuak irakurri			
	%		(Euskaldunak)		(Guztira)		%		(Euskaraz)		(Erdaraz)	
Ohiko irakurlea	57,5	69,4	22,9	42,4	6,1	11,3	55,6	68,1	15,1	34,4	44,4	62,9
Noizbehinkako irakurlea	11,9		19,4		5,2		12,5		19,3		18,5	
Ez irakurlea	30,5		57,7		15,3		31,9		65,5		37,1	
Ez euskalduna	-		-		73,4		-		-		-	
Guztira	100,0		100,0		100,0		100,0		100,0		100,0	

Iturria: Siadeco, 2017

Erdarazkoetan, aisialdian %60k irakurri du azken urtean gutxienez liburu bat papereko formatuan, eta digitalean, %20k. Hirutik bateko erlazioa, hortaz. Euskaraz, berriz, aisialdian euskaldunen %33k irakurri dute azken urtean gutxienez liburu bat paperean; digitalean, %5ek. Zazpitik bateko erlazioa.

Formatu digitaleko liburuen erabilera areagotu egingo dutela adierazi dute %15,8 herritarrek, eta %3,2k esan dute gutxiago erabiliko dituztela. Bide berean ageri da doako liburuen erabilera ere —norbaitek utzita edo oparituta eskuratutako liburuak, paperekoak edo digitalak—: %13,7k diote handitu egingo dutela horien erabilera, eta jaitziera %5,6k seinalatu dute.

IRAKURTZEKO FORMATUA

EUSKARAZ IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK

Euskaldunei galdetu zaie zein diren euskarazko liburuen irakurketa mailan eragin handiena duten faktoreak. Euskaraz irakurtzeko ohitura edo erraztasun falta agertu da maizenik: %42,5ek adierazi dute hori. Nabarmen atzerago dago euskaraz gustuko libururik ez aurkitzea (%9,9).

Zer da zure euskarazko liburuen irakurketa mailan eragin gehien duen alderdia, generoari eta adinari jarraiki? (euskaldunei soilik - %26,6)

		Euskaraz irakurtzeko ohitura/ Erraztasun falta	Gustuko libururik euskaraz ez	Eskaintza ez ezagutzea	Euskarazko liburuak garestiak izatea	Euskara eta euskal kulturarekiko interesik ez	Euskaraz irakurtzeko ohitura dut	Besterik*	Ed/ Ee	Guztira
Generoa	Emakume	45,1	10,0	3,8	0,3	0,6	28,0	10,6	1,5	100,0
	Gizon	39,8	9,8	3,7	0,3	0,9	31,2	11,9	2,4	100,0
Adina	16-25 urte	26,3	12,3	7,0	0,6	0,6	39,2	11,1	2,9	100,0
	26-34 urte	34,8	10,1	3,4	-	2,2	36,0	12,4	1,1	100,0
	35-44 urte	38,8	14,3	4,1	-	1,0	31,6	8,2	2,0	100,0
	45-54 urte	52,5	10,7	2,5	0,8	-	23,8	8,2	1,6	100,0
	55-64 urte	52,5	6,3	-	-	-	27,5	12,5	1,3	100,0
	65 edo gehiago	61,5	2,9	1,0	-	-	16,3	16,3	1,9	100,0
	Guztira	42,5	9,9	3,8	0,3	0,8	29,6	11,3	2,0	100,0



Iturria: Siadeco, 2017

*Besterik: denbora falta, alferkeria, oro har irakurtzeko ohiturarik ez, ez da euskaraz irakurtzen saiatu...

MUSIKA ENTZULEAK

Hamar euskal herritarretik seik egunero edo ia egunero entzuten dute musika; hamarretik ia bik, gutxienez asteen behin. Hamarretik bakarrek ez du musikarik entzuten. Gazteen artean handiagoa da musika kontsumoa: 16-25 urterekin, %90ek entzuten dute egunero edo ia egunero. Adinean gora, txikiagoa da kontsumoa: 65 urtetik gorakoetan, %46k dute musika egunero entzuteko ohitura.

Irratia da musika entzuteko bitarteko nagusia: %42k aipatu dute. Segidan daude gailu elektroniko eramangarriak (%31): sakelako telefonoa, MP4a...



Iturria: Siadeco, 2017

1

Euskararen merkatua txikia da. Datuetatik ondoriozta daiteke euskarazko idatzizko ekoizpenaren inguruan dagoen merkatua 150.000 lagun ingurukoa dela. Merkatu oso mugatua da euskal liburugintzarentzat.

2

Euskaraz ez irakurtzeko arrazoi nagusia **euskaraz irakurtzeko erraztasunik eza** da. Agerian geratzen da euskaldun askoren hizkuntza maila mugatua dela, eta hori oztopo handia da euskararen erabilera handitzen joan dadin.

3

Gaur egun, oraindik, **irakurle gehienek nahiago dituzte paperezko liburuak**. Liburu digitala ez da nagusitu gaur arte. Papera eta digitala, biak batera izango ditugu hementik aurrera. **Musika formatu digitalean entzuten da**, eta kasu horretan bai esan daiteke disko bidez oso jende gutxik entzuten duela eta bide digitala gailendu dela.

3 ONDORIO



HÁBITOS DE LECTURA Y MÚSICA DE LOS HABITANTES DE EUSKAL HERRIA

La Fundación **elkar**, de la mano de la Sociedad de Estudios Siadeco, ha realizado un estudio sobre los hábitos de consumo de libros y música de las personas que habitan en Euskal Herria. El estudio se ha efectuado a lo largo de todo el territorio mediante 2.500 encuestas a personas mayores de 16 años. Por tanto, se ha trabajado un universo de 2,6 millones: en Bizkaia, 996.000 (37,7%);

en Gipuzkoa, 598.000 (22,6%); en Nafarroa, 536.000 (20,3%), en Araba, 274.000 (10,4%); y en Iparr Euskal Herria, 238.000 (9%).

Además, se concluye que el 26,6 % son vascoparlantes y el 73,4% restante hablan castellano o francés. El 10,3 % habla habitualmente en euskera en su entorno más cercano, y el 7,6% utiliza tanto el euskara como el castellano o el

francés. Para el 74,1% el castellano es su principal idioma, mientras que para el 6,6% lo es el francés.

Por lo que se refiere a los hábitos de consumo de prensa, el 5,8% lee prioritariamente periódicos en euskera. Si tenemos en cuenta solo a vascoparlantes, el 20,6% lee prensa en euskera. El 19,3% no lee la prensa.

HÁBITOS DE LECTURA Libros en euskara y en castellano

De cada diez habitantes, siete leen libros: el 58% son lectores habituales —han leído algún libro durante los últimos meses—, y el 12% leen de vez en cuando —han leído el último libro hace menos de seis meses—. El 11% de la población mayor de 16 años lee libros en euskera: el 6% con asiduidad, el 5% esporádicamente. Conviene destacar, que, de cuatro personas, tan solo una es vascoparlante. No obstante, incluso si tenemos en cuenta solo a las personas bilingües, también entre ellas es una minoría la que lee en euskera: solo el 42% —el 22,9% son lectores habituales, y el 19,4%, eventuales—.

Por lo que respecta al castellano, el porcentaje de personas que ha leído un libro en papel en su tiempo de ocio durante el último año es de un 60%, y en formato digital, un 20%. Una relación de tres a uno, por tanto. En euskera, sin embargo, se reduce a un 33% la cifra de lectura en papel, mientras que en formato digital desciende hasta el 5%. Una relación de siete a uno.

FORMATOS DE LECTURA

DIFICULTADES PARA LEER EN EUSKERA

Se ha preguntado sobre los principales factores que inciden en el nivel de lectura en euskera. La mayoría, un 42,5%, ha indicado que el principal motivo es la falta de costumbre y la dificultad para leer en este idioma. Más atrás encontramos la carencia de una oferta de libros interesantes (9,9%).

De diez personas seis escuchan música cada día o casi cada día; dos de cada diez, lo hacen al menos una vez a la semana. Solo una de cada diez no lo hace nunca. Entre la población joven, el consumo de música es mayor: en la franja de edad de 16-25 años: el 90% la escucha a diario o casi. A medida que subimos en la escala de edad, el consumo decrece: el 46% de los mayores de 65 años tiene la costumbre de escucharla a diario. La radio es el principal medio que utilizamos para consumir música (42%). Le siguen los aparatos electrónicos (31%): teléfonos móviles, MP4...

CONSUMIDORES DE MÚSICA

1

El mercado del euskera es reducido. De los datos se puede concluir que el mercado existente en torno a la producción de libros en euskera es de unas 150.000 personas. Se trata de un mercado muy reducido para el entorno editorial en euskera.

2

La razón principal para no leer en euskera es la poca facilidad para hacerlo. Queda en evidencia que el nivel de euskera de muchos vascoparlantes es limitado. Este es un gran obstáculo para el incremento de su uso.

3

Hoy en día, la mayoría de los lectores siguen prefiriendo los libros en papel. El libro digital no ha desbancado al papel. En adelante, convivirán ambos formatos. En el caso de la música sí se puede decir que el consumo de discos es muy reducido, y que la música se escucha en formato digital.

3 CONCLUSIONES



MAIA ETA BIOK

"Baratze bat daukat herrian, Otoio mendiaren oinetan, eta hantxe idazten ditut umeentzako ipuinak eta olerkiak. Baratze horretan sugandilak ibiltzen dira, txantxangorria, tximeletak, trikua... eta noiz edo noiz basurdea eta azeria ere etortzen dira kuxkuxean basotik. Hala ere, nire lagun berezia urtxintxa bat da, adi-adi izaten baitut lanean ari naizenean. Maia esaten diot. **Zergatik izen hori?** Udaberria eta maitasuna ospatzen duten kantu zahar batzuen izena horixe delako."

Horrela aurkeztuko diegu irakurle txikiei Maiaren sorta. Orain arte ez dut idatzi animalien ipuinik eta, egia esateko, aldizka **Beatrix Potter** fabulista ingelesaren iloba sentitu naiz, istorioen oinarritzat etxean sartzen zitzaizkion animalia txikiak hartzen baitzituen. Bestalde, ezin ukatu ipuinok idaztean uneoro etorri zaidala gogora umezaroan hain presente izan dugun Disney atmosfera. Eraginak eragin, espero dut Maia honek izatea bere-bere nortasuna eta xarma. **Nolakoa da Maia?** Jakinguratsua, bizkorra, lagunkoia, sentibera, aktiboa, kontenplatiboa.

Baina bera ardatza izan arren, ez zaigu bakarrik agertuko. **Nor ditu lagunak?** Ariela basurde pinpirina, Bertol hartz dorpea, Gaxuxa azeri bihurria, Ttotto eta

Potto sugandila bikiak, Mozart txantxangorri artista, Greta tximeleta triste, Patziku trikua, besteek mimaizten duten laguna. Eta lagun fijo horietatik aparte, eza-gun berriak ere egingo dituzte atalez atal.

Zer egoeratan ikusiko ditugu pertsonaiak? Gehienetan, haien esperientziak gure umeen esperientzien antzekoak izango dira: eskola, urtebetetzea, udalekuak, hondartza, neba-arreben jaiotza eta beste, baina beti ere adin txikian umeek berezkoa duten **pentsamendu magikoa** aintzat hartuta. Errealitatearen eta fantasiaren arteko muga oraindik ere lausoa izanik, zehazgabetasun horrek joko emango digu nolana hiko egoerak irudikatzeko.

Halaber, kontuan izan ditut, hola edo hala islatzeko, psikologia ebolutiboak seinatzen dituen alderdi batzuk: haurrak harremanen konstelazioan kokatzeko izaten duen premia, bere nortasunaren sentimendua garatzeko; galdera ugariaren bitartez jakin-mina asezteko izaten duen bulkada; baietza eta ezetza kudeatzen ikasi beharra; edota arauak barneratzeko prozesua. Horrexegatik dauka toki berezia ipuin batzuetan **Sare zizare "magikoak"**. Aldizka agertuko da Maiaren ondoan (buztanean, belarrian, kolkoan...), bere izaeraren luzapena delako. Maiak bakarrik ikusten

eta aditzen duen laguna da, nolabait senarekin eta barne-ahotsarekin konpara daitekeena.

Nor da marrazkilaria? Alex Orberen ilustrazio bikai-nek emango diete bizia eszenatoki guztiei, urtaroen tinturak eta testuinguruei buruzko xehetasunak uztartuz. Samurtasuna, umorea, hunkidura, larritasuna, tristura eta beste hainbat emozio adieraziko dizkigu pertsonaien aurpegiera eta keinu ezin adierazkorragoen bidez.

Eta idazkerari buruzko oharrik? Esaldi laburrak, deskriptiboak beren laburrean; paragrafo neurtuak. Eta horiek apailatzeko gatzak, errimatxoak, hotsitzak, abestien zatiak, koplaren bat... poesiarren azukre-garauak ahaztu gabe.

Horra hor Maiari buruzko zenbait erantzun.

Eta azkenik, galdera bat zuontzat: **zuei zer iradokitzen dizuete urtxintxek?** Dena delakoa karrakari horiek inspiratzen dizuetena, sekretu bat esan nahi dizuet isilka-misilka: urtxintxa da nire totema!

MIREN AGUR MEABE
Idazlea

DISFRUTA A LO GRANDE CON
STEPHEN KING

DEBOLSILLO

Penguin
Random House
Grupo Editorial



14.95
euros

La HISTORIA EN COMIC

Conocer el pasado para poder comprender el presente es la principal labor de quienes nos dedicamos a la docencia o a la divulgación de la Historia. Para conseguir nuestro propósito nos valemos de multitud de recursos diferentes, pero en los últimos años, hay uno de ellos que brilla con luz propia: el cómic.



